



BULEGOKO PAPERA – Maila aurreratua

Prozedura ireki bidez eta lehiaketagatiko esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

1. Kontratuaren helburua eta espezifikazioak

1.1. Kontratuaren xedea

1. Koadroa

Lehiaketa honen helburua bulegorako erosi beharreko papera [eta paperezko beste material batzuk] % 100 birziklatua eta batere klororik gabeko zuritzeko prozesuarekin izatea da.

1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapan teknikoak eta zehaztapan baloragarriak

Ondoren aurkeztuko ditugun irizpideek ez dute produktuaren lodierarekin edota neurriarekin zerikusirik. Beraz, erosi beharreko paperaren deskripzioan (DINA4, DINA3, etab.) honako hau dago gehitu beharra:

2. Koadroa

Paperak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- % 100 birziklatua izatea (kontsumitu osteko zuntzen edukia¹ % 65 edo handiagoa).
- Bere zuritzeko prozesua batere klororik gabeko izan behar da (TCF, PCF...).
- Zuritasun maila gutxienez % 80ekoa izatea, ISO 11475:2004 arauaren edo baliokidearen arabera².
- ISO 5630-1:1991 arauaren, Alemaniako DIN 6738:1999 [LDK 24-85] arauaren

¹Kontsumitu osteko paper zuntzak bereizita bildutako paperetik eratorritakoak dira; horrelakoetan, alde batera uzten dira fabrikako errekorteak (aurrekontsumoa).

²Erabilera berezietarako, % 80-90 arteko zuritasun maila duen papera ere erosi daiteke, hori egitea erabakiz gero. Egunero erabiltzeko paperaren kasuan, zuritasun maila % 60ra ere jaits daiteke, langileen sentsibilizazioaren arabera.

edota baliokidea den beste arau baten arabera, 100 urtetik gora iraun behar du.

- Europako EN 12281:2003 arauaren edo baliokidea den beste arau baten arabera, paperak inprimatzeko eta fotokopiatzeko baldintza teknikoak bete behar ditu. Bestela, euren produktuak hurrengo ekipoetan erabiltzeko egokiak direla bermatu beharko dute lizitatuzaileek:

(Antolakundeak dituen makinaren zerrenda)

- Administrazioak, horien segimendua eta kontrola egitean, produktua desegokia dela erabakitzen badu, materiala ordeztzeko baldintzak birnegoziatzeko eskubidea izango du, kostuaren gehikuntza bere gain hartu gabe.

Balioa emango zaio ontziak eta bilgarriak paperezkoak edo kartoizkoak bakarrik izateari (material bakarrekoak), baita % 80 birziklatutako materialez eginak izateari ere.

3. Koadroa

Balioa emango zaie ekoizpenean honako bitarteko hauen bidez lortutako hobekuntzei ere:

- Ekoetiketaren batean (I. motakoa) definitutako isurien eta konposatu kimikoen ingurumen irizpideak betetzea (Aingeru urdina, Eskandinaviako beltzarga, Europako Etiketa Ekologikoa edota antzekoak).

Oharra: Birziklatutako paperak Aingeru urdina ingurumen ziurtagiria izanez gero, espezifikazio guztiak betetzen dituela esan nahiko du; bai derrigorrezkoak, bai baloragarriak (zuritasun maila izan ezik).

2. Esleipen-irizpideak

Esleitzeko irizpideetan zehatz-mehatz dago eman beharra elementu baloragarri bakoitzari emango zaion ponderazioa. Konparazio batera:

4. Koadroa

- Papera ekoizteko prozesuko ingurumen hobekuntzak, gehienez % 15:
 - Isurien eta konposatu kimikoen ingurumen irizpideak betetzea, I. motako ekoetiketaren moduko batean definituak [15 arte]
- Ontzietan eta bilgarrietan hobekuntzak, gehienez ere % 10:

- Paperezko edo kartoizko material bakarreko bilgarria [5 arte]
- Bilgarriaren % 80 baino gehiago birziklatua izatea [5 arte]

3. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Aurkeztutako eskaintzak eta dokumentuak ebaluatzeko lana erraztearren, pleguan bertan zehaztuko da dokumentazioa nola aurkeztu. Informazio hori lehiaketa deitzean emango da, lizitatuak behar beste denborarekin jakin dezaten.

5. Koadroa

Eskaintako **produktu bakoitzerako**, hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) **Produktuaren baldintza espezifikoaren fitxa** (1. eranskina)³, behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Fitxa horietako bakoitzari grapaturik, lizitatuak adierazitako espezifikazioak (bai derrigorrezkoak, bai baloragarriak) betetzen direla frogatzen duen dokumentazioa.
- b) Eskaintako produktu mota bakoitzaren **lagina** (500 orriko paper-sorta), fotokopiagailuetan eta inprimagailuetan ondo dabilela probatzeko.

Baldintza-agirian ezarritako estandarrak eta bestelako egiaztapen batzuk baliokideak direla frogatzea eskaintzaileari dagokio; horretarako, baliokidetza hori erakusten duten azterlan teknikoak aurkeztu beharko ditu.

³Kapitulu honen "Hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda" atalaren lehenengo txostena ikusi (<http://www.ihobe.eus>, Jarduera-eremuak>Erosketa Publiko Berdea.)